

PRENTSAURREKOA

2026-6-2-. 11:00etana

Aretxabaletako KARMELE IGARTUA Aretuan

PARTE JARTZAILEAK:

Ibai Zangitu, zinegotzia, Aretxabaletako Udalaren izenean.

Tere Irastortza Garmendia, idazlea eta Bergarako Idazle eskolako zuzendaria

Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketaren 16. edizioak Irrati gidoia edo *podcast* generoa jorratuko du

Aretxabaletako Udalak eta Bergarako bi helburuok berresten dituzte :

. Sorkuntza bekek idazle berriak bultzatzeko duten garrantzia azpimarratzea. *Asko dira dagoeneko, Bertarako Idazle Eskolatik pasa ondoren edota KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKAA irabazi ondoren bere obrak argitaratu dituzten egileak, gebero guztietan (poesia, antzerkia, haur literatura, ipuiinaa).*

. **Karmele Igartua Bengoaren lana hedatzen eta ezagutzera ematen dihardute.** Karmele Igartuaren poesia lanaren eragin eremua handitzen ari da. Horretan lagundu dute bere argitaratutako obra osoa Pamielak argitaratu izana, eta asmo berari lotuko zaizkio ikasturte honetan Karmele Igartuaren *Itsaso-kontra bat* argitalpen elebidunean Valentzian argitaratuz.

Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak elkarlanean Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketa antolatuko dute. Hasieran Idazle Eskolak ikasle artean antolatutako Sorkuntza Beka izatetik, Karmele Igartua idazle eta olerkari aretxabaletarren omenez jarraitu du bere bidea lehiaketak. Beraz, aurten bekak bere hamaseigarren edizioa burutuko du.

IRRATI-GIDOIA EDO PODCASTA izango da aurten jorratuko den generoa. 2025ko Karmele Igartua Sorkuntzaren 15. edizioaren epai-mahaiak erabakita bezala, 2026koko edizioa Irrati-gidoia edo podcastak generoari eskainiko zaio.

- Gutxienez 15 orri eta gehienez 20 orriko lanak aurkeztu ahal izango dituzte .
- Parte-hartzaileak 16 urtetik gorakoak izango dira.
- Lan bakarra aurkeztu liteke, beti ere muga horien barruan, eta 1,5eko tartean idatzia.
- Lanak originala izan beharko du, euskaraz idatzia eta argitaratu gabea.
- Gaiaren aldetik ez dago mugarik
- Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 13a izango da. Horrela lanak aurkezteko tarte handiagoa jartzea erabaki du epai-mahaiak.

Aretxabaletako Udalaren laguntzarekin antolatutako lehiaketa honen irabazleak 2.500 euroko saria jasoko du, eta 2026ko Idazle Eskolako edozein modulutan parte hartu ahal izango du, inolako matrikularik ordaindu gabe. Lana www.idazten.com orrian ere argitaratuko da. Egile eskubideek idazlearenak izaten jarraituko dute urtebete pasa ondoren.

Karmele Igartuaren *Contramar*- Itsaso Kontra bat erdaraz argitaratzeko helburua berresten da

Itsaso kontra bat liburua Karmele Igartua hil ostean argitaratu zen. Eta Espaina mailako Poesia Sari Naionalerako hautagai izan zen. 2026ko udazkenean Valentziako Contrabando editorialaren eskutik 2026ko azaroan argitaratuko da *Itsaso kontra bat*, gazteleraz *Contramar* liburua, 2023an Karmele Igartuaren lan osoaren itzulpenaren lehen urratsa izan daiteke eta itzulpen honen lanketa ere batera Aretxabaletako Udalaren eta Idazle Eskolaren laguntzarekin burutuko da. Eta 2026an Aretxabaletako udalak edizio honen hainbat ale erosiko ditu, 2023an egin zuen bezala. Argitalpena elebiduna izango da.

BEKAren iragarpena eta sari-ematea Aretxabaletan antolatuko dira urtero bezala. Bekaren irabazlea nor izango den 2026ko abenduaren 20a baino lehen emango da aditzera.